



DISKOA

Arroz-soroetan ere aske



VIETCONG 68 TALDEKO KIDEAK



A B VIETCONG 68

TOUGH AIN'T ENOUGH RDS /
TORTURE CHAMBER RDS, 2018

IKER BARANDIARAN @ikerBarandiara

Arrasaten jaio eta hazitakoa naiz, ondorioz Oi! mugimenduaren irla iraunkorreko biziraulea izan naiz luzaroan. Bai, nik ere baditut, beste estilo askotako taldeenaz gain, Oi! diskoak etxean eta batzuk kuttunak ditut, baina azkar asetu nintzen koru horiekin, punkaren amorrua akabatzen duten punteoekin eta, kasu askotan, zabaltzen dituzten mezuekin. Beste zerbait behar nuen...

Horregatik gustura hartzen ditut hemen bizi (izan) duten konfort-gunetik irten eta bestelako proposamenak, gero eta askeagoak badira hobe, jorratzeko erabakia hartzen dutenak. Horren adibide da Vietcong 68 post-Bardulia taldea. Laukote honetako kideek ibilbide emankorra dute atzetik eta, besteak beste, Orreaga 778, Kaleko

Urdangak eta Neallta Fola proiektuetan ibili dira, eta gaur egun, horietako batzuek, besteak beste, Screammers and Sinners zein Ttun Ttun Brigaden dihardute.

Pepino abeslariak askotan erakutsi du kortseetatik aldentzeko gogo eta hala egin zuen, esaterako, Achtung proiektu amorratuarekin. Oraingoan, erabat irekia den Karlote gitarra jotzailea egin du bidelagun. Bien artean eman diote forma, Moto eta Ekaitzekin batera, dagoeneko bi disko kaleratu dituen Vietcong 68ri. Nahiz eta taldekideak Hernani, Bergara, Aretxabaleta eta Azkoitiakoak izan, ez dira askotan elkartzeko, eta ondorioz zuzeneko gutxi ematen dute.

Behin Oi!-aren patroia estuetatik aterata sudur puntan jartzen zaie-

na idatzi eta abestea erabaki zuten, ahal izanez gero probokatzeko bokazioaz, jakina. Zortzi abestiz osatutako biniloan Ilegales handien lehen laneko *Yo soy quien espía los juegos de los niños* bertsionatzen dute eta horrekin jada irabazi banaute ere, bada mami gehiago: punk-rock amorratuarekin ezkontzen den rock-and-roll baziloia (*Generosa*); Guidaren tanke-rako rock kaletarra uztartzen (*No a la democracia*); Oi! leloei eusten dion arroz-soroetako punk-rocka; Fiachras-en arrastoa uzten duen *Generosa II* balada rockeroa; *Tangocracia* punk-rock-and-roll azkarra; Discipulos eta Oi! musika batzen dituen *En el delta del Mekong*; eta Ilegales-en legatua post-punk ilunarekin batzen duen *Yo soy el niño* autobiografia ederra. ●